

## KRITIKA MUSIKA

Joseba Martín

Ongi  
bideratutako  
intentsitatea

## Love of Lesbian

Lekua: Bilboko Azkena aretoa. Eguna:  
Apirilak 5. Jende kopurua: 100 lagun.

Jende gutxi bildu zen Azkena aretora Bartzelonako taldea ikusteko: beharbada, entzule egokienak oporretan zeuden oraindik. Baina ingurua ikusi ondoren, musikariak ez ziren makaldu: lan fina egin zuten ordu sutsu batean. Santi Blanes dugu taldeko kantaria, eta haren ahots bereziak giro aproposa sortu zuen, ingelesez kantatuko pieza guztietan. Laukotea bi musikari gonbidaturekin agertu zen, bata gitarra akustikoan eta bestea biolinean (Maria Asensio zen hau, Manolo Garcíaren bira elektrikoan ikusi genuena). Kontzertu erdian biek alde egin zuten, eta azken atalean bueltatu (oso polita izen zen Mariaren parte *U* kantuan).

Pop-rock pertsonala gartzatzen du Kataluniako taldeak, The Cure, Goo Goo Dolls, Velvet Underground —*Lou Reed in my city* egin zuten, *Walk on the wild side* kantuen bigarren partean burutuz— eta antzeko bandak hor daude, baina Santiren ahotsak, gitarren joko finak —Jordi Roigek oso gustu ona du tresna jotzeko orduan— eta erritmo bikotearen kolpeek espazio berezia gauzatzen dute.


'Tainted love'-ren  
bertsio berezia

*Is it fiction?* album berriko kantuen entzun genituen —hasteko, *Move on* lasaia eta laburra, *Stupid at all* rockeroa, *Evasive* bikaina, *A day in a park*, wawah-rekin, *Wasted day*, *U*, *Make up* edo izenburukoa, besteak beste—, aurreko grabazio eza-gunenak ere berreskuratuz —*Merry monday* kutsakorra, *Crashing* edo *Freakie goes to Hollywood*, esaterako—

Bisetan, Soft Cell taldearen *Tainted love* egiten zuten Santik eta Jordik bakarrik, eta *Atomic human blade* kantu zaharrekin amaitu zuten kontzertua. Gustura geratu ziren entzuleak, gustura musikariak ere. Izan ere, Santik mikroan aitortu zenez, bi entzule topatu zituzten behin Valladolideko kontzertu batean. Bost axola: kalitate nabarmena du Kataluniako banda honek, bai diskoan bai zuzenean, eta helburuak lortuko ditu horrelako lan maila mantentzen badute eta barruko intentsitatea horrela bideratzen badute.

## LABURRERAN

## MUSIKA

Carlos Nuñezek bere hiru diskoen eta beste taldeekin  
egin dituen kolaborazioen bilduma egin duMONDELO / EFE  
Carlos Nuñez.

Carlos Nuñez gaita jotzaile galiziarak bere lehen hiru diskoen bilduma egin du *Todos os mundos* lanean: *Os amores libre*, *A irmandade das estrelas* eta *Mayo longo*. Bertan, beste folk, rock eta pop taldeetan egin dituen kolaborazioak ere sartu ditu. Halaber, diskoan hainbat kolaboratzaile izan ditu: emakumezko ahotsen artean, Noa, Dulce Pontes eta Luz Casal izan dira; Kepa Junkera, Vicente Amigo, Roger Hodgson eta Ry Cooder, besteak beste. «Orain arte egindako bidearen balantzea egiteko balioko dit», esan du Nuñezek.

## ANTZERKIA

Tramairuk eta Mairuk  
'Zugarramurdiko  
sorginak' antzeztuko  
dute Beran

Fernando Domenech Ricok 1993an idatzitako testuan oinarrituriko *Zugarramurdiko sorginak* obra presatu dute Mairu antzerki taldeak eta Tantarumairu dantza taldeak, elkarlanean, eta apirilaren 13an estreinatuko dute, Berako Kultur Etxean, 20:00etan. Beñardo Goietxek itzuliriko testu horrek 1611n Hondarribian izaniko sorgin auzia du ardatz. Halaz ere, Bortzietako sinesmen eta kondairek ere badute tokirik.

## ZINEMA

'Attack of the clones' filmaren estreinaldirako iladan  
jarri dira dagoeneko ikusle batzuk

*Star wars* film saileko azken atala, *Attack of the clones*, maiatzaren 16a arte estreinatuko ez den arren, lehen ikusle grinatsuak iladan jarriak dira dagoeneko Hollywoodeko Txinatar Antzokiko atarian. Dozena erdi bat ikuslek kanpalekua ezarri dute bertan. Duela hiru urte beste horrenbeste egin zuten, *The phantom menace*-ren estreinaldia ikusteko. Zinemaren historian arrakasta handiena izan duen hirugarren filma izan zen, *Titanic* eta *Star wars*-en atzetik.

## ARTEA

Venezian ireki berri duten erakusketa batek gizakien  
eta animalien arteko harremanak erakusten ditu

Venezian atzo zabaldu zuten erakusketa batek animalien eta gizakien arteko harremanak ditu gaitzat. Gregory Colbert argazkilariak bi espezie bizidunok «hizkuntza bera hitz egiteko gaitasuna» dutela erakutsi nahi izan du. 200 argazki inguru daude, eta guztietan protagonista nagusiak gizakiak eta animaliak dira, eta haien arteko komunikazio ona.

## KRITIKA MUSIKA

Jon Eskisabel

## Giroaren menpe

## Lambchop

Lekua: Donostiako Antzoki Zaharra. Eguna:  
Apirilak 5. Jende kopurua: la beteta.

Pianoa eta ahotsa ardatz nagusitzat harturik, bere soinuari halako *autozentsura* bat ezarri dio Lambchop taldeak bere azken diskoan, orain dela hilabete eta erdi kaleratutako *Is a woman* horretan. Izan ere, diskoan hamabost taldekideek parte hartu duten arren, Nashvilleko taldeak orain arte grabaturiko lanik biluziena da berau —musikari ugarien moldaketak entzuteko bilaketa lana egin behar da—, giro aldetik linealena edo batasun handiena gordetzen duena, eta hasierako *country*-tik gehien aldentzen dena.

Giro hori bera da orain zuzenean eramaten ari dena taldea. Abiatu berri duen Europako biran zortzi lagunek osatzen dute Lambchop. Tony Crow pianista izan zen taulan agertzen lehena —kontzertuan izango zuen protagonismoa iragarri— eta sarrera labur baten ondoren gainerako musikariak agertu ziren: lau gitarrista —zenbait unetan beste bat, Mark Nevers, taldearen buru ezkutua, erantsi zitzaion—, baxu jotzaile bat eta bateria jotzaile bat. Beraz, hari eta haize atalik ez —Deanna Varagonak une bakanetan baino ez zuen gitarra akustikoa utzi saxofoia hartzeko—, *Nixon* aurreko lanaren soinu joritasunaren erreproduktzioa espero zuten zaleen penarako.

## Azken diskoa nagusi

Hasieratik garbi geratu zen nondikjoko zuen emanaldiak. *Is a woman*-eko lehen lau kantuen jarraian eta ordena horretan iritsi ziren —*The daily growl*, *The new cobweb summer*, *My blue wave* eta *I can hardly spell my name*—. Antzoki Zaharrak inguru perfektua eskaintzen zuen pianoaren doinu klasiko eta dotoreek eta Kurt Wagnerrek ahots epel eta erakargarriak —hasiera hotz baten ondoren— gidaturiko kantu leun, geldo eta malenkoniatsuekin gozatzeko. Bi gitarrista nagusien efektuek eta Neversek



Kurt Wagner.

atzeko gordelekutik sortutako zaratek laguntzen zuten giroa are biziagoa izan zedin, baina, hala ere, ordu erdi geroago disko linealtasun bera nagusitzen hasi zen. Wagnerrek berak esan duenez, kontzertu baten amaiera gisa funtzionatzen dute kantu berriek. Hasieratik eta segidan eskaintzea, beraz, apustu arriskutsua da.

Zorionez, *You masculine you* (*Nixon* diskoakoa) garaiz iritsi zen pitin bat apal dutako giroa suspertzeko. Itxuraldatua jo arren, soul musikara egindako lehen hurbilketa izan zen —geroago iritsiko ziren *What else could it be?* eta amaierako *Up with people*, argiak piztuta eta jende asko jada kanpoan zegoela—. Bigarren zatian hasierako solemnitatea galdu zuen kontzertuak, dinamismoa irabazi zuen taldeak (*D. Scott Parsley*) eta soinu esparrua zabaldu zuen, *country*-ari egindako keinuak barne.

*Is a woman* kantuekin agur esan ondoren, lehen bisean, ikusle batek eskatuta, lehen disko *Soaky in the pooper* jo zuten, gaueko une ederrenetakoa lortuz. Bigarren bisa lortzeko gehiago borrokatu behar izan zuen jendeak, baina saria jaso zuen. Taldeak *Up with people*-rekin biribildu zuen emanaldi gorabeheratsu baina eder bat.

Aurretik, St. Thomas bikote norvegiarra aritu zen. Lehen diskoa aurkeztu zuten, Neil Young eta folkaren artean, Lambchopeko bateria jotzailearen laguntzarekin. Atseginak.

## IRAGARKI MERKEAK

943 300 222

33 x 33 mm

33 x 33  
MODULO  
(Edizio orokorra)Eguna: 19 €  
Astea (6 egun): 15 €  
2 aste (12 egun): 13 €  
Hilabetea (24 egun): 9 €33 x 33 mm  
MODULO  
(Iparralde)Eguna: 14 €  
Astea (6 egun): 12 €  
2 aste (12 egun): 10 €  
Hilabetea (24 egun): 8 €33 x 33 mm  
MODULO  
(Araba-Nafarroa)Eguna: 14 €  
Astea (6 egun): 12 €  
2 aste (12 egun): 10 €  
Hilabetea (24 egun): 8 €SOINU TXIKIA  
SALGAIla erabili  
gabea  
Merke-merkea

Tel.: 943 52 58 78 (Goizez)